

HIRIGINTZA FITXA.- 9 SO. ITZIARKO HILERRIA LURZORU HIRITARREZINA.

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.

Ez da beharrezkoa izan.

1.2. HIRI EGITURA.

Itziarko hilerria.

Lurraldearen egitura organikoa eratzen duen elementua da, Istiñan dagoen Debako hilerriarekin batera.

1.3. ESPARRUAREN AZALERA. 1.807 m²

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

- 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarrezina.
 2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Komunitatearen ekipamenduko zona: zerbitzu publikoak (11. artikulua: G.8).
 2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Hilerri osoak unitate morfologiko bat osatzen du eta, beraz, alderdi bakar bat.

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Dagoen antolamendua eta eraikuntza finkatzea.
 Hilerria ekialdera edo mendebaldera handitzeko beharra ahalbidetu eta aurreikustea.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Orientabide gisa:

Eraikuntza finkatua	76 m ²
Lur emateko eremua	1.314 m ²
Berdegunea.....	216 m ²
Oinezkoentzako sarbidea eta ibilbideak	201 m ²

3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Hileta Legeriari buruzkoak eta urriaren 19ko 202/2004 Dekretua eta haren Eranskina (EHAA, 2004ko azaroak 18).

3.3. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua.	Ekipamendua.
Eraikuntza.	Dagoen eraikuntza finkatzea. Horma-hilobi gehiago jartzea baimenduko da.
Jabaria.	Publikoa.
Erabilera.	Hileta Legeriaren eta urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren eta haren Eranskinaren (EHAA, 2004ko azaroak 18) arabera.

3.4. EKIPAMENDU, HIRITARTZE ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Dagozkion obra proiektuen arabera.

Handitze lanik eginez gero, desjabetze sistema baliatuko da beharrezko diren lurak eskuratzeko. Handitze lanak egiteko aldameneko zonak hartzean, ez da beharrezkoa izango ez planeamendua aldatzerik ez lurzorua birsailkatzerik.